

mugalar613

EUSKARARA EKARRIAK

Olinpiar Jokoetako leloa da «Citius, altius, fortius», euskarazko literatur itzulpenaz berba egiteko orriotara ekarria. Altuago, indartsuago eta azkarrago, susmoa dugulako gurera ekarriak gero eta hizkuntza gehiagotan duela iturria (altuago), trebatuagoa den itzultzaile sorta duela (indartsuago) eta lan garaikideak euskaraz bizkor ematen direla (azkarrago).

Anartz BILBAO

Ezinbestekoa da Literatura Unibertsala bilduma aipatzea –eta hor dira ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat) edo Klasikoak bildumak ere– euskarara ekarritako literatur lanez berba egiteko. EIZIEK eta Euskal Editoreen Elkarrekin Jaurlaritzarekin hitzarmena adostu zuten aspaldi, literatura unibertsala argitaratzeko. Lehendabiziko aroan ehun obra argitaratu zituzten; corpus esanguratsua izanagatik, ordura arte ezer gutxi zegoenez eginda, beste berrogeita hamar plazaratu ziren hurrengoan. Iaz ordea, eten bat egon zen, ez proiektua inongo aldetik kolokan jarri delako, lanok behar besteko zabalkundea izan ez dutela sumatu zutelako baino. Eta horretan indarrak jarrita, 2010ean bilduma sustatzeko aurkezpenak egin zituzten institutuetan (antzezleekin) eta liburutegietan (musikariek). Orain, hirugarren aroa prestatzen ari dira.

koak izan daitezke baina... «nor sartzen da Choderlosen 'Harreman arriskutsuak' lana argitaratzera, bostehun orriko XVIII. mendeko frantses literaturako obra, negozio editoriala nekez suertatuko dena?» Beraz, Montoriok nabarmendu digunez, «berezko merkatuak obra hauei ezin ziolako erantzun sortu zen bilduma hau. Eta hala ere, gure kezka nagusietako bat irakurleengana ezin heltzea izaten da».

Literatura Unibertsalaren lehen aroan Ibaizabal argitaletxea arduratu zen lanak plazaratzeaz, eta bigarren aroaren emaitza berriz, Elkar-Alberdaniaren elkarlanak ekarri du argitara. Alberdania, baina, inguruko hizkuntzetan arrakasta edo zeresana eman duten lan garaikideak euskarara ekartzen dabil aspaldian. Inazio Mujika Iraola bertako editoreak honakoa azaldu digu: «Alberdaniak sumatu genuen, Literatura Unibertsala bilduman kaleratzen ziren Stendhal, Flaubert, Kafka eta abarrez gain, irakurleak gaur egungo liburuak ere nahi zituela, arrakasta duten obrak nahi zituela euskaraz, eta bide horretan hasi ginen, ahal genuen neurrian eskaintza bat egiten ira-

OLARRAREN ESANETAN, ARABIERATIK, JAPONIERATIK EDO TXINERATIK ITZULTZEN DUTEN ITZULTZAILEAK DAUDEN ARREN, HONEK EZ DU ESAN NAHI EGUNGO PREMIAK ASETZEKO ADINA JENDE DAGOENIK

Bildumaren gaineko ikuspegi orokorra izateko, EIZIEko kide Bego Montoriorengana jo dugu. Orain arte argitaratutakoari buruz, bildumak gabeziak zituela agertu digu irakasleak, bigarren aroa bukatu eta egin zuten hausnarketa ahotan hartuta. «Genero aldetik, orain arte gehiena nobela plazaratu da, batez ere ingelese-tik... eta hirugarren aroak ikuspegi zabalagoa eta ez hain eurozentrismo beharko luke, Amerika eta Europako literaturatik at diren lanak ere euskarara ekarri, alegia», dio.


Literatura Unibertsala bildumak lan klasikoak plazaratzea du helburu, eta «egia da gehienak hildako egileak direla». Montorioren esanetan, kontuan hartu behar da diru publikoarekin atondua dela, eta «hasieratik argitaletxei lehia ez leiala ez egitea zen asmoa, beraiek atera zitzaketen liburuetan ez sartzea». Bilduma osatzen duten lan gehienak funtsez-

kurleari, mundu osoan egiten den literaturaren lagin bat eskainiz», .

LAN GARAIIKIDEAK EUSKARATUZ

Horrela, «Pijama marradunaz jantzitako mutikoa» gaztelaniaz eta euskaraz kasik aldi berean argitaratu ziren, esaterako. Eta Paul Austerren azken bost lanak egun berean argitaratu dira gaztelaniaz eta euskaraz. «Eta hori jendeak eskertu egiten du». Gainera, erronkari gogotik helduz, inguruko hizkuntzetan ezagunak ez diren lanak ere argitaratu izan dituzte. Nathacha Appanah, kasu, gaztelaniara itzulia izan aurretik jaso genuen euskaraz.

Orain hogeita bi urte sortua, Igela argitaletxeak lan eskerga egin du euskarara literatur lanak ematen. Xabier Olarra bertako sortzaileak agertu digunez, «helburu nagusia xumea zen, funtsean, gure irakurle-bizitzan bikainak iruditu zitzaizkigun zenbait liburu argitaratzea». Garai hartan itzulpen-



Euskal argitaletxeek ahalegin nabarmena egin dute lan esanguratsuek euskarara ekartzen.

Conny BEYREUTHER

arloaz zehazki inor gutxi arduratzen zen, eta «bat baino gehiago harritu zen gure auzeriaz. Eta negozioaren martxa ezagutzen zutenek bazekiten ondo zeinen arlo neke-tua eta zaila zen guk aukeratutakoa. Hala ere oraindik ere, lan zaila, neketsua, esker-tzarrekoa, gutxietsia... baina gustuko lekuan, aldaparik ez», jarraitu du tolosar nafartuak.

Olarra aitortu digunez, «egia da kasu gehienetan Joseba Urteagak eta biok gogoko ditugun liburuak aukeratu izan ditugula hasieratik. Eta gaur egun ere hala da funtsean», baina modu erromantikoa lan egiten ote duten itaunduta, beraiek ere arrakasta izan duten lan garaikide edo *best seller*-ei begiratzen dietela onartu digu. «Begiratu, bai, begiratzen diegu, baina horietako askori behiek trenari pasatzean begiratzen dieten bezain soraio... (batzuetan inbidia pixka batekin ere bai, ez gara hain erromantikoa)». Itzultzaileak argitu digu-

nez, «gure kalkulak egiten ditugu, eta hasieratik pentsatzen genuen gure kapritxoak papereratuak ikusi ahal izateko, Sail beltzari eta Enigmari edo gazteei zuzendutako liburuei garrantzi berezia eman behar genuela, salgarriagoak izan behar zutelako, alegia. Baina ez dute izan guk hasieran amesten genuen adinako arrakasta. Beraz, hasieran hamar urtean ehun liburu argitaratzera iritsiko ginela pentsatzen genuen, baina laster konturatu ginen hori ezinezkoa zela, eta hogeita pasatxo behar izan ditugu aurten, okerragorik ez bada, kopuru horretara hurbiltzeko». Bitxikeria bat kontatu digu hurrena, kontua grafikoki uler dezagun edo. «Estrategia hori bera izan zuen Gallimard argitaletxe frantseseko argitaratzaileak André Gideri esan zion behin *Série Noire* (Sail beltza) bildumak 'etxeko puta' izan behar zuela, lan gorenak argitaratzeko behar adina diru atera ahal izateko. Gu ere bide horretatik abiatu ginen, baina hemen



«LITERATURA UNIBERTSAL GEHIENA ERDARETAN
IRAKURRI DUGU; HASIERAN ITZULPENEKIKO ERREZELO
IKARAGARRIA ZEGOEN, ORAIN BERRIZ, GUTXIESPEN
HORI GAINDITUZ GOAZ», DIO MONTORIOK

nonbait –hain lur garbia– horrelako bide zikinak ez du arrakastarik izan».

Itzultzaile kopuruari eta trebetasun mailari buruz galdetuta, «asko hazi da –onartzen du Olarrak–, hogeitaz hamar urte hauek ez baitira alferrik pasatu. Orain badugu arabieratik itzuliko digun itzultzaile kualifikatu bat, japonieratik edo txineratik itzuliko digun beste bat... baina horrek ez du esan nahi gaurko premiak asetzeko adina jende gabiltzanik, eta oraindik ere beste hogeitaz hamar urte behar ez direnik gaitasun horiek maila polit bate-

ra iristeko». Olarrak bezala, Mujika Iraolak ere kalitate oneko itzultzaile sorta handi samarra dugula uste du, «baina arazo bat dugu itzultzaileekin azkar ibiltzeko. Kolokatu ta daudela, hau da, lanean ari direla, nor bere lanean –Aldundian, Legebiltzarrean...–. Ez dira bizi itzulpen literariotik, eta beraien lanetatik askatzeko edo luma egiteko onartzen dituzte literatur itzulpenak».

Bere aldetik, Montoriok ere itzultzaile talde sendoa dugula uste du, baina gabeziak ere aztertu izan ditu. «Itzulpenen kali-

tatea asko hobetu da baina zailtasunak ere baditugu, hezkuntzak ez du nahikoa trebatu euskalduna, itzultzaile zein hiztunok erregistro batzuk jasotzea finkatu gabe dugu, eta garatu beharreko alorren artean zuzenketa eta edizioa, literatur itzulpenen azterketa sistematikoagoa egitea ere badira». Montoriok, Itzultzaile Eskolan irakasle denak, «ikasketek eragin mugatuagoa dute –onartzen du itzultzaileez berba egiterakoan–. Garrantzi gehiago izan du Literatura Unibertsala bildumak edo Igelaren inguruan sortu den itzultzaile taldeak. Literatura Unibertsala bildumak aukera eman die itzultzaile mordo bati baldintza onetan lan egiteko, eta baldintza onak arrazoizko epea eta arrazoizko ordainketa dira, ez gehiago».

ERREZELOAK GAINDITU

Alberdania etxeko arduradunaren aburuz, «irakurlea gero eta gehiago ari da sartzen itzulpenaren munduan, hau da, liburu itzulian. Azken batean, hizkuntza guztietan pasatzen da, literatura itzulia gehiago irakurtzen dela bertakoa baino. Kontua da sarritan gaztelaniaz-eta ez garelako konturatzeko literatura itzulia ari garela irakurtzen... Eta euskaraz ere pixkanaka horra goaz. Nik nahiago nuke azkarrago joango bagina eta jendeak aurreiritzi gutxiago balitu itzulpenekiko, baina, nahi eta nahi ez, zorionez bide horretan goaz». Eta uste berekoak dira Montorio eta Igelako Olarra ere. «Bai, lehen batzuek ezkutatu egiten zuten beren 'bizioa', itzulpenak irakurtzeko alegia, 'Diario de Navarra' irakurtzeko ezkutatzeko den bezalatsu. Berriketak utzita, irakurleak pixkanaka ari dira ohitzen itzulpenak (ere) irakurtzera, baina prozesua mantso doa», dio Olarrak. Bere aldetik, Montoriok aitortu digunez, «guk literatura unibertsal gehiena erdaretan irakurri genuen. Euskaraz ez egoteak ohitura falta ekarri zuen, eta hasieran itzulpenekiko errezele ikaragarria zegoen. Orain berriz, neurri batean gainditu da euskarazko itzulpena gutxiesteko joera hori».

Aurretik esandakoen isla, joan den Durangoko Azokarako Igelak Xukriren «Ogi hutsa» plazaratu zuen, arabieratik euskarara zuzenean ekarritako lehen liburua, Arantzazu Royok itzulia, eta udaberri bueltarako, Alberdania Irene Nemirovsky eta Primo Leviren lan nagusi bana, Susanne Collinsen «Gose Jokoak» trilogiako azken atala, Abdellah Taïa marokoarraren «Le Jour du roi» edo ez Euskal Herrian ez Espainian ere ezaguna ez den Anne Beresten «La Fille de son père» itzulpen lanak prestatzen dabil –azken biak gaztelaniaz eta euskaraz emateko–.

«Oso hiztun komunitate txikia gara eta edozein argitalpenek muga jakin batzuk ditu, baina bestetik, urteak dira hezkuntza osoa euskaraz egin duten gazteak datoze la eta jende horrek ere irakurgai behar du. Eta azken hogeitaz hamar urteotan itzulpen bolumena handituz joan da nabarmen», gaineratu du Montoriok, eta aipatzekoa den beste kontu batez ohartarazi gaitu: «Armiarmak egin duen zabaltze lana, Literatura Unibertsaleko lan asko bertan baitira osorik, sarean eta guztion esku jarrita; irakurleengana heltzea da-eta arazorik nabarmenena».

LITERATURA UNIBERTSALA: HIRUGARREN AROA

Orain arte ehun eta berrogeita hamar obra itzuli ditu Literatura Unibertsalak bi arotan. Egun hirugarren oldea prestatzen dihardu EIZIEK, eta bertako lehendakari Bakartxo

Arrizabalagarengana jo dugu, aro berriaz galdezka. «Finean, 150 tituluko asmoa bete da orain arte, eta klasikoen itzulpena sustatu, baina beste hainbat dago egiteke».

Hirugarren arorako gogoeta bat egin zuen EIZIEK, bildumaren gabeziak aztertzeko. «Kontu batzuk aldatu beharra ikusi genuen. Egile batzuk falta zitzaizkigun, batez ere emazteak eta Europatik edo Amerikatik at ziren literaturak. Irizpide horietan arreta jarrita, berrogeita hamar liburuko zerrenda bat egin nahian gabiltza: hirugarren aroa».

Zerrenda osatzeko bost laguneko taldea eratu dute, Arrizabalaga bera idazkari duena. «Deia egin genien ea laguntza emango ziguten, eta gogoeta egiten eta zerrendak proposatzen ari gara». Aro berria bultzatzeko, EIZIE alor gehienetara heltzen den aholkularitza-taldea osatzen saiatu da: argitaratze munduko profesionalak, literatur adituak, unibertsitatekoak... «Zerrenda arian da, eta aurki izango da osatua». Gero lehiaketa egingo dute bildumaz arduratuko den argitaletxea aukeratzeko.

Hogeitaz hamar urte ehun eta berrogeita hamar obratik gora itzuli dira Literatura Unibertsala bildumaren baitan. EIZIE

